

# BERRIGARA

119. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, irailak 24

ANGIOZARKO  
SAN MIGEL  
JAIK  
ASTEBURU  
HONETAN

JUSTO  
GARATEREKIN  
BERRIKETAN

KIROLAK

BERGARAKO  
FUTBOL TALDE  
NAGUSIKO  
KAPITAINAREKIN  
HITZ EGIN DUGU





Malzaga-Urbina  
aztergai

GRUPO  
**Image  
Center**

phox

**KIÑU**

LABORATEGIKO  
TRESNAK



PAPERA  
KUBETAK  
MARGINADORAK  
PINTZAK  
KIMIKOAK  
etab...

BARRENKALE, 35 ☎ 76 58 05

# LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

## IKASTARO ESKAINTZA

### IKASTAROAK

- Ventura autoedizioa
- Automata programableak
- Ordenadorez lagundutako Autocad diseinua
- CAD elektrikoa (Shema)
- Mekanikoentzako elektrizitatea
- Kontrol numerikoa
- Word Perfect
- Dbase IV
- Kontabilitate Plan Orokorra
- Nominak eta Seguritate Soziala
- Kalitate kontrola

### ORDUAK

- 30 ordu
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40

### HASIERA

- 93-10-4
- 93-10-4
- 93-10-4
- 93-11-22
- 93-11-22
- 93-11-8
- 93-10-4
- 93-11-22
- 93-10-4
- 93-10-4
- 93-10-4

☎ 76 38 40

Faxa: 76 38 41

**ALAITU  
ZURE  
BEGIAK**  
EUSTURAK  
**2.550** PTAN

Hemen daude. MULTIOPTICASEk bakarrik dituen eustura berriak, begi onak duenarentzat. Kalitate frogatua eta diseinu ikusgarria. Eta prezioa: betikoak! 2.550 Pta.

ARRAÑAGA OPTIKAREN garantiarekin eta MULTIOPTICASEN zerbitzua: 250 optika baino gehiago beti zuri begira.

Garantia hoberik al da?

*J. Larrañaga*  
OPTIKA

MULTIOPTICAS

Ibargaray, 16 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

**MULTIOPTICAS**  
Betizuri Begira

## Argitaratzailea:

Jardun Elkarte  
 Errotalde Jauregia, 20.570  
 Bergara. ☎ 76 08 19  
 Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97  
 Babeslea: Bergarako Udala.  
 Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
 eta Mikel Elkoroberezibar.

## Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo  
 Mendibil.

## Publizitatea eta harpidetza:

Alex Azkarate eta Eduarne  
 Arenaza. ☎ 76 03 97

## Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta  
 Alex Labaien.

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel  
 Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel  
 Angel Elkoroberezibar, J. M.  
 Elxpuru, J. Oregi, A. Urzelai,  
 Maripi Laskurain, N. Alzelai,  
 Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.  
 Lizarralde, Monika Belastegi,  
 Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,  
 Asier Madinabeitia, Josune Iñarra  
 eta A. M. Goenaga.

## Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu  
 Okina eta Antonio Arrillaga

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).)

Banaketa : Txantxangorri Taldea.

## Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-  
 tzen aldizkarian adierazitako esa-  
 nen eta eritzien erantzunkizunik.

# PROTAGONISTAK

## SAN MARTIN GAZTE

Joan dira San Marti-  
 nak eta esan daiteke  
 jende ugari ibili dela ja-  
 ietan herriko kale eta  
 antolatutako ekitaldi  
 ezberdinetan. Tanbo-  
 rrada, krosa, larunba-  
 teko feria... eta beste  
 hainbat ekitaldik jende  
 askoren partaidetza  
 izan dute eta egun zein  
 gauzez gainezka egon  
 dira herriko bazter guz-  
 tiak.



Tabernariak ere na-  
 bari dute bai San Marti-  
 netako giro berezia. Ta-  
 berna ezagun bateko  
 jabearen hitzetan, "*au-  
 rreko urteetan baino  
 jende gehiago ibili da  
 kalean. Gauetan izu-  
 garrizko jende pila  
 izan da eta batez ere*

*gazte jendea izan da  
 gebien ikusten zena*".

Gazteak izan dira  
 agian jaietako beneta-  
 ko protagonistak, es-  
 kolara bueltatzeko  
 bezperatan, oporreta-  
 ko azken egunak apro-  
 betxatu nahi izan dituz-  
 tenak.

## Jende askoren partaidetza San Martinetako ekitaldietan

# ITURRI ONETIK

## Gizarte laguntzaile berria

Xabier Legorburu 25 urteko antzuolarra izango da Udaleko gizarte laguntzaile berria. Datorren astera arte ofiziala izango ez den arren, Xabier Legorburu izan da lehiaketa publikora atera den plaza eskuratuko duena, egin beharreko probak gairitu ondoren. Legorburu Antzuola eta Elgetako gizarte laguntzailea izan dugu orain arte eta hemendik lasterrera Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuan hasiko da lanean.

# ESAN DUTE

"Aurten Feria Seminarioko patioan antolatu beharra izan dugu eta hori guretzat hobe da leku gehiago baitago eta jendeak bertako produktuak ikus ditzake, behintzat urtean behin".


**JESUS MARI BEITIA**  
 Kultur Ekintzako  
 presidentea  
 EGIN

"Ez dut uste artzaiak desagertuko direnik. Lehen lana zegoenean, fabrikatara alde egin zuten, baina gauzak dauden moduan, agian bueltatu egin beharko dira. Dena den, ezin dezakegu orain 50 urte bezala lanean jarraitu eta egunean jarri beharko gara; erastailuak erosi eta gazta geuk egin, gaztandegiek egiten dute negozioa eta".

**JESUS MARI PLAZAOLA**  
 Udal langilea eta  
 artzaia  
 EL DIARIO VASCO



Aldizkari honek  
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
 laguntza jaso du



Aldizkari honek  
 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
 Turismo sailaren laguntza jaso du

Atseden zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

# ZUBIETA

## elektragarritza

- ✓ Motorren bobinak eta
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea  
 Tfnoa: 76 23 48

# ITXASMENDI

## Taberna

Barrenkale 36  
 Tfnoa: 76 50 64  
 BERGARA

### Futbola Bergaran

Txalotzekoa benetan gure futbol taldeak Oñatin lortu zuen garaipena. Eguraldi ona aprobetxatuz, han izan ginen futbolzale kuadrila bat eta taldeak egin zuen joku bikaina goraiatu genuen guztiok.

Etxeko lehen partiduaren ondoren nahiko dezepzionaturik irten ginen Agorrosinetik baina lehenguneko exhibizioaren ondoren, aurten gauza interesgarriak egin daitezkeela uste dugu. Perez entrenatzaileak talde txukuna osatu duela ematen du eta futbol ona egin dezaketean jokalaririk asko daude aurten. Ekipo gaztea gainera, poztasun bat baino gehiago emateko aproposa.

Ez dira urte asko pasa gure taldea 3. mailan aritzen zenetik. Orduko futbolzaletasuna berreskuratzea izan beharko litzateke direktiba eta taldearen helburu nagusia. Bergara bezalako herri batek 3. mailako talde bat izatea ez da gehiegi eskatzea (hor dugu Elgoibarren kasua, 2.B mailan orain gutxi).

Futbolzaletasuna pizteko espektakulua indartzea ere derrigorrezkoa da. Azken denboralditan Bergaran ikusitako futbola ez da afizioa egiten duen horietakoa. Futbol polita eta golak heltzen badira, jendea hurbilduko da ia erdi-hutsik egoten den Agorrosinera. Horretarako gazteen artean futbolerako zaletasuna piztu behar da, prezioak merke-

tuz (gogoratu iaz BERRIGARAKO gutun sailean gazte talde batekin izandako polemika) edota kantera erabat indartuz.

Oso ondo iruditzen zaigu taldeko jokalaririk gehienak bertakoak izatea; horrek direktibak eta elkartean diren eta izan diren entrenatzaile ezberdinen lanaren fruitu dira eta ildo horretatik segitzea eskatzen diogu oraingo direktibari.

Bukatzean, iaz 2. mailako erregionalak egindako denboraldi bikaina azpimarratu nahi genuke. Ea aurten ere, bertako jokalaririk osatutako taldeak estreinatu berri duen mailan (lehen mailako erregionala) iazko joku bikaina berdintzen duen.

Aupa Bergara!!

### Bergarako futbolzale talde bat

### San Martin lights

Aurtengo San Martinak direla eta, Udalen eta tabernarien arteko akordio ezaren arrazoiak jakitea gustatuko litzaidake.

Medio ezberdinetan irakurri ahal izan genuenez arazo nagusia aseguru bat egiteko denbora eza izan zen. Ez zait iruditzen horrelako arrazoi bat nahikoa denik inziatiba hauek atzera botatzeko are gehiago kontutan harturik ze fetxa ziren. Uste dut horrelako ekintzak mesedegarriak direla denontzako, bai tabernari, musikazale eta herritar guztientzako.

Udalarentzat, gazte jendearen eskaera bat betetzeko aukera paregabea duela, eta herriko musikazale eta gazteentzat aukera paregabe bat orain Euskal Herriko esparru musikalean punta puntan dauden musika talde batzuk entzuteko.

Oraindik ere, gogoan dut frontoian Hertzainak, La Polla Records edo beste zenbait taldek jotzen zutenean gure herrian sortzen zen giro gazte eta alaia. Baina ordutik hona gauzak aldatu egin dira eta Txibisto itxi zutenetik jende gazte edo ez hain gazteak berari gustatzen zaion musika entzuteko aukera bakarra Bideberriko "gettoan" izan du. Ez al dugu gazteok plaza bezalako leku bat merezi? edo zer gertatzen da Frontoiarekin?

Eta aurreko gaiari lotuz, zergatik ez dute Udaleko Kultura Komisioko arduradunek kontutan izan orain tabernariak eskainitako aukera herriko jaiak bi egunetan luzatzeko eta gainera debalde. Beraz, ea hurrengoan denontzako jaiak antolatzen diren eta kanpoko aportazioak kontutan hartzen diren.

Posdata: Ez dut "bakailaua" gustoko.

Jokin Aranzabal

## Tiira ba!



## Josu Okina

## Zinea

▼▼ Lehen zatiko aktore ezagunak (**Lloyd Bridges, Charlie Sheen, Valeria Golino** eta **Richard Crenna**) eta situazio barregarriez jositako filmea. *Aterrizo como puedes* filmearen egileek militarrik parodiatu dituzte oraingoan.

▼▼ Himalayako mendi mitikoaren inguruan egindako filme honek mendizaletasunaren alde arriskutsua azaldu nahi izan du. Suspensea, paisaia ikusgarriak eta abentura nahasten zaizkigu bertan.

▼▼ *Wayne Szalinski* (**Rick Moranis**) zientifikoak haurrak haunditu egin ditu orain. Lehen zatian bezala, **Randal Kleiser**ren (*Grease*) filmean umorea izango da protagonista nagusia.



### HOT SHOTS 2

Ostirala: 22.30.

Igaridea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.



### K-2

Larunbata: 17.00,

19.30, 22.30.



### CARIÑO, HE AGRANDADO AL NIÑO

Igaridea: 11.30.

## Deiak

▼ **Jubilatuek** hilaren 28an Jaizkibelera irteera antolatu dute.

▼ Igardean **Alderdi Egunera** joateko txartelak Batzokian eskura ditzakezue.

▼ **Kirol Argazkien** Nazioarteko Lehiaketako lanak irailaren 28tik aurrera Kultur Etxean.

▼ **Senideaken** kontzentrazioa asteartean 7etan Plazan.

▼ **Igerilari** izandakoen afaria urriaren 2an. Izen-ematea Popis, Pol-Pol eta Etxagin.

## Farmaziak

▼ **Larunbata 25:**

Puy/Morales.

▼ **Igardea 26:**

Puy/Azkoaga.

▼ **Astelehena 27:**

Guallar/Español.

▼ **Asteartea 28:**

Estella/Corcuera.

▼ **Asteazkena 29:**

Mozos/Irizar.

▼ **Osteguna 30:**

Camacho/Amezua.

▼ **Ostirala 1:**

Puy.

## Ogia

▼ **Igardea 26:** Konde.

# Amets

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

**AMETS TAILERRAK**

Berezano auzoa OÑATI



# Ziripot

Bidekurutzeta 11; Tfnoa: 76 11 41



**Literatur eta dantza ikastaroak**

JARDUN Elkartek urritik abendura bitarteko ostegunetan, 5.30etatik 7.30etara, Yolanda Arrietak zuzenduko duen literatur tailerra antolatu du. Bestalde, urri eta azaroko larunbat arratsaldetan dantza ikastaroa (manboa, tangoa, pasodoblea...) ere izango da. Bietan izena emateko epea irailaren 28an amaituko da eta interesatuek 760819 telefonora jo dezakete.

**Ikastaroak Jubilatuetan**

Jubilatuena Egoitzak terapia okupazionalako ondoko ikastaroak eskeiniko ditu urritik aurrera: eskulanak, pintura, gantxilloa, yoga, sukaldaritza, jostintza eta kantua. Izen-ematea irailaren 30era arte izango da zabalik.

**Bideo ikastaroa**

Bideo ikastaroa emango da Kultur Etxean urriaren 4tik azaroaren 2ra arte. Izen-ematea (4.000 pta., 2.000 langabetuentzat) ostegunetan itxiko da.



Baserriko produktuak i genituen larunbat goizeko protagonistak Seminarioan.

**Baserritarren feria**

*Hogeita hamaika baserritarrek hartu zuten parte*

Ikusmin dexente sortarazi zuen larunbatean izandako Barazki, Fruitu, Lora eta Gazta Lehiaketaren edizio berriak. Eguraldiak ere lagundu nahi izan zuen eta jende asko hurbildu zen goiz osoan zehar Seminarioko patiora Deba bailarako baserritarrek (31 guztira) ekarritako produktuak gertu-gertutik ikusi eta erosteko asmoz.

Antolatzaile eta ikusleek produktuen kalitatea gorai patzen zuten bitartean, epaimahaiak sarrituen berri eman zuen: barazkietan An-

tzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañaga nagusitu zen, Artizeko Felix Iturrino bergarra hirugarren izan zela; fruitu lehiaketan Aramaioko Arriola baserriko Jose Luis Marinak irabazi zuen Ascension Irizar antzuolarraren aurretik; Narbaizako Bittori Arregi lehena izan zen moztutako loretan eta etxeko loren artean, berriz, Fidela Gabilondoren atzetik Mariaren Lagundiko monjak sailkatu ziren. Azkenik, gazten lehiaketa Zubiria oñatiarrak irabazi zuen.

**HARATEGIA**

**ANTIA**

**URDAITEGIA**

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**ONENA**

**TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

**TXUKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA

**MAKAILO**

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**KAILASH**

**ZENTRO  
ESOTERIKOA**

Parasikologi Zientzien Instituto  
Hispano Amerikarrean  
diplomatutako profesionalak  
Tarota · Hipnosia · Erresonantzia  
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



Angiozartarrek programa zabala prestatu dute aurtengo San Migeletarako.

## San Migelak Angiozarren

*Ostiralean hasi eta asteazkenera arte luzatuko dira jaiak*

Ostiralean, arratsaldeko 8etan, hasiera emango zaie Angiozar auzoko jaiari kanpai jote eta etxaflero jaurtiketarekin. Gaueko 10etan briska txapelketa jokatu da Pagomendi elkartearen, 11.30etan dantzaldia izango da Lotxo taldearekin eta goizaldera, txokolatea banatuko da bildutakoen artean.

Larunbatean, 15.30etan plater tiraketa txapelketa herritarrentzat, 5etan jolasak, 7etan mus txapelketa eta 9etan kalejira. Gaubela taldeak alaituko du dantzaldia 11.30e-

tatik aurrera eta goizaldera txokolate beroa berriz ere.

Igandean, meza nagusia goizeko 11etan, 12etan luntxa Pagomendi elkartearen, eguerdian Eguzki taldearekin kalejira eta egun guztian zehar jolasak izango dira. Gaueko 10etan, Eguzkirekin dantzaldia.

Asteazkenean, San Migel eguna, meza 11etan, kalejira ondoren, 17.30etan jolasak eta askaria, dantzaldia jarraian eta 9etan San Migelen zeruratzea eta dantzaldia Gezalaga bikotearen eskutik.

### Arrisku Soldata programa

Urriaren 1ean amaituko da Arrisku Soldata programaren barnean enpresa ideiak aurkezteko epea. Programa honen bidez enpresa ekimenak bideratu eta autoenplegua bultzatu nahi da. Aukeratu izanez gero, enpresa ideiaaren ekonomi bideragarritasuna aztertuko da.

### Emakumeentzako ikastaroak urrian

Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu urrirako: eskulanak, yoga, lorazaintza eta eztabaida taldeak. Interesatuak Zerbitzuan bertan (Anbulategian) edota 762440 telefono zenbakian egin dezakete izen-ematea.

### Kutxu Otamendi hil

Hilabete batez koman egon ondoren, larunbatean hil zen Donostian, 31 urte zituela, Kutxu Otamendi margolari bergarra. Azken urteotan Zarautzen bizi zen eta hileta elizkizunak astelehenean izan ziren Aieteko Gurutzeaga elizan. Goian bego.

## ZAPELAITZ

### Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

## Iletxo

Ileapaindegi  
mistoa

### BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15  
20570 BERGARA

## Garnish

### Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

## Siaska

### Dena zure haurarentzako

San Pedro 10, Tfnoa: 76 10 39

## Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

## REMENTERIA

### Altzariak

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

# Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak emanaldi arrakastatsuak Huelvan

*Alfredo González: "Harrera izugarria eskaini digute andaluziarrek"*

Arrakasta haundia lortzen ari omen da Bergarako Orkestra Sinfonikoa Huelva aldean. Asteartean Alfredo González Chirlaquerekin izan ginen hizketan eta Orkestako zuzendariaren esanetan, *"orainarteko kontzertuetan areto ezberdinek bete egin dira eta jendea oso gustora geratu da"*.

Huelvako Diputazioak gonbidatuta, guztira 70 lagun (63 musiko eta 7 laguntzaile, azken hauen artean Luis Abajo zinegotzia eta Ignacio Beldarrain "Azpeiti" sukaldaria) abiatu ziren Andaluzia aldera. Bergararrak Mazagoneko Gazte Aterpetxean izan dira egunotan eta harrera bikaina izan dute Alfredok dioenez: *"oso ondo dago guztia eta primeran pasatzen ari gara. Goizetan hondartzara joaten gara eta arrotsaldetan, kontzertua dugun herrirako bidean, hainbat toki ikusteko aukera izaten dugu. Jendea? Badakizue nolakoak diren andaluziarrak, alaiak eta beti laguntzeko prest"*.

Hasieran pentsatutako programak hainbat aldaketa izan zituen

eta beste kontzertu bat emateko eskatu diete bergararrei. Isla Cristinako abesbatzaren laguntzaz, Bonaresen eman zuten lehen kontzertua (irailak 18), Zalamea del Realen igandean, astelehenean Punta Umbrian, Triguerosen asteartean, Aracenan asteazkenean eta gira honi amaiera emateko bi kontzertu ematekotan ziren Isla Cristinan ostegunean; lehenbizikoa, eguerdian, bertako ikasleei zuzendutako

kontzertu pedagogikoa, eta bigarrena, bertan ospatuko den Atlantikoko Abesbatzen Jaialdiari hasiera emango liokeena. Aldaketa horien erruz egun batez atzeratu da guztia. Beraz, gaur ostirala Sevilla ikusteko atsedean eguna izan behar zuen espedizio bergararrak eta bihar larunbata itzulerako bidaia egingo dute autobusez. Gaueko 12ak aldera Bergaran izango direla espero da.

Andaluziarrak bergararrek gustora omen daude. Baina Bergaratik joandako 70 lagunez osatutako taldea ere primeran pasatzen ari da Huelvan. Kontzertuak eskaini ezezik, eguzkiarekin gozatu ere bai.



**GURIDI** Altzariak

**Era guztietako altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

**MINER**  
**ardoa**

Biltegiko telefona: 76 41 41

**Ardo onak, jakina**

**SUBIJATI**

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41



# ELUR-MENDI

## Elosutarren elkarte

Hainbat auzotan gertatu den bezala, lehen eskola egondako tokian kokatuta dago gaur egun Elosuko Elur-Mendi elkarte. Eskola itxi zenean, etxea utzik gelditu zen. Beranduago, elkarte egiteko ideia sortu eta aurrera egin zuten auzotarrek. Etxea horretarako egokitu, eta 1977.eko martxoaren 13an Elur-Mendi auzo elkarte bezala hasi zen funtzionatzen.

Garai hartako kontuak gogoratuz, bertako presidente den Alex Alberdik auzoko apaiz izan zen Inaki gogoratu du. Apaiz honek makina bat lan egin omen du auzoaren onerako eta baita elkarte aurrera ateratzeko ere.

Elkarte sortu zenean 90 bat bazkide ziren Elur-Mendi elkarte, eta orain 117 izatera iritsi dira. Bazkide hauetaz gain, beste 35 jubilatuta daude elkarte honetan. Elosuko elkarte emakumeak

onartzen dira bazkide bezala, honen testigu dira elkarte dauten 18 emakumeak. Alexek aipatu digunez, hasiera batean elkarte honetako bazkide izateko bete beharreko baldintza bakar bat zegoen: Elosu auzoko seme edo alaba izatea. Beranduago berriz, kaleko bazkideak ere onartzea erabaki zuten, eta nahiz eta gehienak Elosuko seme-alabak izan, kaleko gutxi batzuk ere badira. Dena den, 117 bazkide hauen batazbesteko adina 45 urte ingurukoa da.

Elur-Mendi elkarte bazkideek urtean 9.000 pzta. ordaintzen dute



Elosutarren txokoa: Elur-Mendi.

kuota bezala. Honetaz gain, auzo elkarte bat izateko nahiko mugimendu haundia dago elkarte honetan, urteko kaja 3 milioi izaten baita. Faltetan ez dabilta oso fin, %3.5 inguruan aritzen bait dira. Momentu honetan ez dute aurrera eramateko proiekturik,

oraintxe konpondu baitute elkarte lehenengo pisuko sabai guztia, ur arazo batzuk zirela eta.

Sukaldari trebe ugari ere ba omen dago elkarte honetan, baina jatordu haundiak gertatzen ibiltzen diren biak aipatu dizkigu Alexek: Martin Lete eta Inaxio Beldarrain. Afaririk ez denean, ez omen dago mugimendu haundirik elkarte, baina larunbat eta igandetan jende asko biltzen omen da Elur-Mendi elkarte, dauzkaten bi pisuak txiki gelditzen direlarik egun hauetan.

*Ainboa Lete*

### FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1977.eko martxoaren 13an.

**BAZKIDEAK:** 117.

**HELBIDEA:** Elosu auzoa.

**PRESIDENTEA:** Alex Alberdi.

**ELKARTEAREN EGUNA:** Ez dago.

**URTEKO KUOTA:** 9.000 pzta.

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.**

**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## EGUREN GESTORIA

**Maria Pilar Eguren Diez**

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea.

☎ 76 21 65 / 76 24 45

## Iturkintz Berri

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

**INSTALAZIOAK:**

**Iturkintza**

**Berogintza**

**Gasa**

☎ 76 28 04

**ileapaindegia**

**eder gela**

**disdira**

Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

# Justo Garatek gogoan du bere jaioterria; bueltatzeko aukerarik izan ez arren

## Urrutitik datorren ahotsa

**Argitaratu berri den "Un critico en las Quimbambas" liburua dela eta, Justo Garate elkarrizketatu du Tere Beloki kazetariak. Bergararraren hitzak entzuteko aukera izango duzue larunbatean goizeko 9etatik 10etara bitartean Euskadi Irratiko "Bejondeizula" saioan.**

eta jakintsua, mundu zabalean ibilia da urte askotan eta lagunak non nahi egin ditu. Bederatzi hizkuntza hitzegiteko gaita da, nahiz eta gaur egun irakurtzeko aukerarik ez izan, begiak gaixo baititu.

Kazetariak "Quimbambas" zer den galdezterakoan: *"Una America ideal, fantastica"* erantzuten du Justo Garatek.

Gerra Zibila zela eta gaztetan erbesteratu ondoren, besoak zabalik hartu zuen Amerika.



Justo Garatek bihar kontatuko dituenak aurreratzen dizkizue orrialde honetan BERRIGARAk.

Bere jaioterria eta gaztaroko lagunak oso gogoan ditu Argentinako Mendoza hirian bere emazte Itziar eta bi alaba eta semearekin bizi den 93 urteko bergararrak: *"Bergara oso ederra dago, erabat txukunduta ikusi nuen 1987an azken aldiz bertan izan nintzeanean. Oso oroimen onak ditut, bai senitarteko, lagun, kolegio zein kaleko giroa"*.

Osasun aldetik makal xamar dagoen arren, *"baina buruz oso ederki"* (berak dioenez), Bergara "Kultur Hiri" izenda dezaten ahaleginak egiten ari dela aipatzen du: *"Lehendakariari gutun bat bidaltzekotan nabil, Bergara Ciudad Cultural izendatu dezaten"*.

Justo Garate mediku

### "Un critico en las Quimbambas" liburua salgai

Elias Amezaga idazleak, Victoriano Gallastegi alkateak, Julio Ferraik Argentinako kontsul adjuntua Bilbon, eta Jose Angel Ascunceek argitaratu berri den "Un critico en las Quimbambas" liburuaren zuzendaria izan denak, egin zuten joan zen ostiralean Justo Garateren bizitzari buruzko datuak eta artikulua biltzen dituen liburuaren aurkezpena. Alkateak, liburu honen bultzatzaileetarikoa bat izan den Antonio Urzelai herriko ikerlariaren lana gogora ekarri zuen eta guztiak bat etorri ziren Justo Garatek bai Euskal Herrian eta baita Argentinan eta mundu zabalean ere, egindako lana goraiatzeko.



Interbentzio gune partehartzaileak (IGP) izenak berak gutxi asko esaten digu. Baina hurrengo hilean zehar Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan zerbaite esateko duenak Udalean buzoi bat izango du prest bere kezkek azaltzeko. Hori gutxi bada 34 bergarrek ere Maltzaga-Urbina proiektuari buruzko bere epaia emateko aukera izango dute. Guzti hori laister gure artean ezaguna izango den Interbentzio Gune Partehartzaileak (IGP) delakoei esker izango da. Proiektua "Gizarteaz" enpresak jarri du martxan eta datorren maiatzerarte iraungo du.



## MALTZAGA-URBINA: hiritarrek badute zer esan

*Interbentzio Gune Partehartzaileen bitartez, autopistari buruz euren iritzia azal dezakete 34 bergarrek*

**M**altzaga-Urbina autopista proiektua dela eta, beharrezkoa den ala ez erabakitzeko edo ze proiektu den onena eztabai-

datzeko IGP deitutakoak (Interbentzio Gune Partehartzaileak) antolatuko dira. Talde horretan lan egun batzuetan zehar (3-5 egun) zozketaz hauta-

tutako hiritar talde batek, Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan eztabaidatuko du. Horretarako, eguneroko lanetik libratuko dira eta ordaindu

**Pepelu**

**Ileapaindegia**

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

**ederTu**

20 urte zure zerbitzura,  
kalitatezko altzariak eskaintzen

Barrenkale, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

egingo zaie. Hauen lana azken finean zera erabakitzea izango da: 1- Ea beharrezkoa den Maltzaga-Urbina autopista egitea. 2- Beharrezkoa dela erabakitzen badute, autopistaren norabide egokiena zein den edo beste proiektu berri bat egin beharko den ere erabaki beharko dute.

Horri buruz erabakitzeke ez dira bakarrik egongo zeren hiritar talde horiek gaiarekin zerikusirik duten talde, instituzio edo hiritarren laguntza izango baitute. IGPak "Gizarteaz" enpresak antolatuta ditu eta Alemanian dagoeneko erabili izan dira, eta beren ustez sistema honekin "eredu honek aniztasuna, pluraltasuna eta partizipazioa bermatzen ditu, zeren erabakia ez du proiektuan interesatuta dagoen alde batek bakarrik hartzen, hiritarrek baizik".

Baina IGPek hartutako azken erabakia proposamena izango da eta azken erabakia Eusko Jaurlaritzarena izango da.

### IGPko partideen aukeraketa

IGPak lau tokitan eratuko dira: Donostian, Deba Garaian, Deba Behean eta Gasteizen. Guztira, lau gune horietan 350 hiritarrek parte hartuko dute. Deba Garaia 150 pertsonekin izango da parte hartzaile gehien bil-

duko dituen eskualdea. Bergaratik 34k hartuko dute parte eta Gizarteaz enpresako Direktiboa den Luxio Ugartek adierazi digunez "hautatuko diren pertsonak urriaren 10etik 23ra bitartean zozketaz erabakiko dira. Hautatuei gutun bat bidaliko zaie eta bertan adieraziko zaie elkarrizketa batera gonbidatuta daudela, gutuna erantzuteko 5 egun izango dituztelarik".

Deba Garaiko IGPen bilerak Arrasaten izango dira eta bertan eskualdeko herrietako biztanleak 25 pertsonako 6 taldetan banatuko dira. Bergaratik 34 pertsona doazen moduan, Antzuolatik 5 joango dira eta bailarako beste herrietako ordezkari-

kin batera. gaiaren inguruko hainbat puntu aztertuko dituzte.

### Bileretan aztertuko diren gaiak

Urriaren 1ean gure herriko Udalean buzoi bat jarriko da eta honek badu bere garrantzia, bertatik irtengo baitira gero eztabaidatuko diren gaiak. Buzoira edozein proposamen aurkez daiteke, baina Ugartek dioenez "buzoia ez da erreferendum baten moduan proiektuarekin ados zauden aia ez adierazteko. Buzoian proiektu eta alternatiba sakonak jasotzea espero dugu eta hori bai, bakoitzak bere kezka nabiz eta txikia izan

aurkez dezala". Buzoian proposamenak aurkezteko epea urriaren 30ean bukatuko da eta ondoren Gizarteaz enpresak alternatiba, sugezentzia eta proposamenekin zerrenda bat egingo du eta beste zerrenda bat buzoietan eskatutako gai eta gai horiei buruz tratatuko duten hizlariekin. Zerrenda prestatu ondoren "Gizarteaz" elkarteak inplikaturako talde guztiekin kontaktatuko du beraiek prestatutako gai eta hizlariekin ados dauden jakiteko.

### Lehen bilera urtarrilaren 10ean

Gaiak eta proposamenak aztertu ondoren urtarrilean hasiko da lehen



"Gizarteaz" enpresako bi ordezkari Bergaran izan genituen orain dela bi aste inguru, IGP-ri buruz jarduten.

## GIARTZU

### DERMO-ESTETIKA ZENTRUA

- ZIMURRENTZAKO TRATAMENDUA.
- URREZKO HARIEN INPLANTAZIOA.
- KOLAGENO INFILTRAZIOA.
- AKNEA KENTZEA.
- ZELULITISARENZAKO TRATAMENDUA.
- MASAIA.
- DEPILATZE ELEKTRIKOA GARANTIZATUA (EZ MIN ETA EZ MARKARIK GABEA).
- ARGIZARIZKO DEPILATZEA (BOTATZEKO ARGIZARI HOTZA ZEIN BEROA).

Boni Laskurain, 3 behea  
 ☎ 76 35 71  
 BERGARA

ORDUTEGIA: 9:00-13:00 / 14:30-20:00



erabakia publikoa izango da.

Baina aurretik esan dugun moduan epai hori bakarrik proposamen bat izango da eta kontutan izango den arren, Maltzaga-Urbina proiektuaren inguruko azken hitza Eusko Jaurlaritzak izango du.

Beraz, Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan zerbait esateko baldin baduzu, adi egon datorren hilabete osoan zure ekarpenak egiteko herriko Udalean buzoi bat izango baituzu eta zure etxera gutun bat heltzen bada proiektu honetan zure parte hartzea eskatuz, kontutan izan zeren zure ere izan zaitezke, modu batean, Maltzaga-Urbina-aren etorkizuna zehaztuko duen pertsonetariko bat.

esperientzia praktikoa. Guztira 25 pertsonatako 14 talde sortuko dira eta horietatik lehen hasten, Arrasatekoa izango da. Arrasaten urtarrilaren 10etik 14ra bitartean izango da lehen eztabaida taldea eta hautatutako pertsonak Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan duten eritzia zehazteko gaien adituak direnen laguntza izango dute. Horretaz aparte ikus-entzutezko materiala ere izango dute laguntza moduan. Hiritarrek hasera batean proiektua bere orokortasunean aztertzeke aukera izango dute eta ondoren nukleo bakoitzari dago-

kion gai espezifikoak jorratuko dituzte.

### Maiatzerako herritarren epaia

Herritarren arteko bilerak bukatu ondoren, 14 eztabaida taldetako bakoitzetik bi kide aukeratu dira eta horiek hiritarren komisio bat sortuko dute. Komisio honek Gizarteaz enpresak herritarrek hartutako erabakiarekin egingo duen txostena kontrolatuko duela rik.

Komisioa txostenarekin ados dagoenean, maiatzaren 4 inguruan hain zuzen, beraiek hartutako



## BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoa konfekzio industriala
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

**FS**  
oto sistema

APPÉNI<sup>1</sup>

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**Zer irizten diezu IGP edo NIP-ei?**



**Santiago Vicente**  
28 urte, langilea

Maltzaga-Urbina autopista egin aurretik jendearen iritzia kontutan hartzea ondo ikusten dut.




**Nerea Lazpiur**  
25 urte, langilea

Jendearen diruarekin ordaintzen diren gauzetan, beharrezkoa da iritziz ezberdinak kontutan hartzea.



**Elisa Gorrotxategi**  
49 urte, etxeandrea

Jendearen iritzia kontutan hartzea ondo dago, hala ere, guk baino gehiago dakitenak badaudela uste dut.



**Iñigo Alonso**  
26 urte, langilea

Leizarango autobidea zela eta izan ziren eztabaida eta istiluak berriro gerta ez daitezela, tresna onak izan daitezke.

**ETXE-  
-AUNDI**

**Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

BIZKOTZOAK ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 SS

**BERGARA**

**INGELESA eta FRANTSESA**

**MATRIKULA  
ZABALIK**

**KURTSO HASIERA:**  
Irailak 28

- Maila guztiak
- Azterketen prestakuntza
- Ikastaro trinkoak
- Umeak, gazteak eta helduak



**INFORMAZIOA:**  
Bergarako UNED  
(3. pisua)  
☎ 76 06 87



**JOSEFINA**

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
  - Masajeak, solariuma, perikura, estetika...
- Espaloia 4, ☎ 76 35 38



**Konukoa eta baserria**

Opor hauetan, Venezuelako herrien eta bereziki hango nekazaritzaren egoera ezagutzeko aukera izan dut.

Eta han ezagutu dut indijenen garaitik lurra landu eta bizitzeko izan duten era, "konukoa", gure "baserria"rekin parekatu daitekeena, produktu ezberdinak landu eta tar-tekatuz, lurraren bizia mantendu eta hango familia handientzako eguneroko janaria eta osasuna (sendabelarrak) ziurtatuz, etorkizunera begira duten betiko alternatiba.

Baina konukoa atzerapentzat joaz, nekazal agintariak aspaldidanik sail handitan produktu bakar bat (artoa, kafea edo azukar kafabera) sartzera bultzatzen dituzte. Eta honela, nekazariak, inbertsioak egitera behartuak, kreditupean eta euren jeneroak transformatzen dituzten industrien menpe gelditzen dira, hauek erabakitako miseri prezioak jaso eta gosea pasatzera behartuak.

Ez al du ba honek antzik gure egoerarekin?

Konukeroak, baserriarrak bezala, garbi dauka izadiaren zati bat dela, eta produzitzeko era egokia ezezik, bizitzeko era bat dela ingurua errespetatuz. Horrek frogatu dit trinko segi behar dugula gure baserriaren defentsan, hemen eta han konukoarekin, eta aukera hori denei ireki behar zaiela. Izan ere hain aberats behar lukeen herrialdean goseak dagoen lurrik eta etxerik gabeko jendea ere ezagutu dut. Eta lurra berreskuratzeko eta gutxieneko aterpe bat lortzeko dauden mugimentuen indarra, emakumeen kemena terratenienteen polizien aurka... eta borroka honen lorpen batzuk ikusteak mundu berri hobe baterako itzaropena ere ireki dit.

**Maite Aristegi**



**"Tinajera muerta vacunando 'carpeta'"**

Horra hor Estatu Batuetako gaztelaniazko egunkari baten agertutako albiste-idazpuru bat. Hori idatzi zuenak albistea ingelesez jasoko zuen, noski ("teen-ager dead vacuuming carpet" edo horrelakoren bat), eta antza ego-kiago eritzi zion "quinceañera muerta limpiando alfombra con aspiradora" edo eman beharrean bere irakurleen giroan hizkuntza nagusi eta kultura-hizkuntza zen inglesezko hitzei eustea.

Gezurra badirudi ere gure artean ere horren antzekoak ikusi ahal izaten ditugu. Iaz adibidez, BERRIGARAREN aleetako baten hain zuzen, eskola-haurren arteko idazketa-saio batez ziharduela, aintzinate zaharrek narraztiak gai zituen baten horietako bat "lagarto haundi bat, kresta erektil batekin" zela irakurri genuen.

Bi kasuak gauza bera adierazten digute, beste hizkuntzaren nagusitasunaren aitortpena eta norberarenarekiko gutxiespena. Izan ere, haur horiei "erektil" hitz ulerterrez eta "internazionala" erakutsi zien irakasleak euskeratik gazteleara itzuli behar izan balu "un musker grande con gangor zutikor" erakusten ez zitzatekeela ausartuko garbi dago. Batzutan, benetan euskeraren alde dihardugun ala gure buruari iruzur egiten ari ote geran zalantzan jartzerainoko kezka sortzen da. Euskaldunei euskeraz hitz egitea eta idaztea dagokigu, noski, baina hori ez da aski, gurea bigarren mailako hizkuntza bilakarazi eta azkenean hiltzea nahi ez badugu barne dituen ahalpide guztiez baliatzea ezinbestekoa bait-da. Guztiok horretaz jabetu ezik euskerak bizirik irauterik ez dago.

**Josu Oregi**

**IGARO**

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

**BOLINTXO**

**Okindegia**

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz 4, EIBAR  
☎ 79 63 42 ARRASATE



**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 07 78

**DEPORTIVO TABERNA**

Tfnoa: 76 01 51

## Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## PINTURA

ERAKUSKETA

GURE HERRIA  
Marcelino Ruiz

NAHIKARI

KAFE-TABERNA

Masterreka 20 ☎ 76 57 71 BERGARA

## EDEL tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik  
haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltxak,  
edredoiak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar  
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik  
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

## ARIZNOA

### Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

JOSE  
LUIS

eta

MIKEL

URTEAGA, 6

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

Besaulki eta  
tresiloen  
konponketa  
eta  
tapizaketa.  
Etxebarruen  
dekorazioa

## BERGARES MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Uriarte 8, ☎ 76 11 99 / 76 14 47  
Faxa: 76 04 77 BERGARA



### ☐ Euskaraz bai, baina ulertu ez


"Eun Mts. Aldarapen-Desvio a 100 m." dio goiko kartelak. Arzubi baserria izandakoaren ondoan aurkitu dezakezue eta batek baino gehiagok, euskarazko esaldia irakurrita behintzat, ez luke batere garbi izango zer egin. Are gutxiago kontutan izanda kotxean ez dela batere erreza hiztegia hartu eta esalditxoaren esanahia topatzen hastera. Errepidean burutzen ari diren obrez gain, honelako esaldiek ere ez dute bidea batere errezten...

### ☐ Cho Oyutik bueltan

#### Juan Ramon Garitano

Begarako Udaleko langileak ezin izan du Cho-Oyuko gailurra (8.201 m.) zapaldu osasun arazoak ziréla medio. Angiozartar honek neumonia puntua izan zuen 6.300 m.tara iristean eta aste honetan bertan etxera itzuli behar izan du, gainontzeko 3 espediziokideak han geratu direlarik. Juan Ramon guztiz errekuiperatuta dago dagoeneko eta Gabonak aldean beste lagun batzukin Akonkaguara espedizio bat antolatzeko asmotan dabil.

Ongi-etorri!!





## □ Sasoi onean

Badirudi **Amaia Agirre** eta **Edu Muruamendiaraz** bergarar dantzariak sasoi onean direla. Pasa den abuztuan hainbat lehiaketa irabazi ondoren, larunbatean Seminarioan jokatuako **Moises Aspiazuren Oroimenaldian** nagusitu ziren. Hamar bikotek hartu zuten parte eta bergararrek bi trofeo (txapeldunei eta lehen bergararrei zegozkienak, Gabilondo anai-arreben aurretik geratu baitziren), txapela, painuelua eta 25.000 pta. eraman zituzten. Hala jarrai dezatela!!



## □ Musika nostalgikoentzat

**Elkar** argitaletxeak *Ez dok amairu* kolektibotik kanpo ibilitako euskal talde eta kantarien bilduma argitaratuko du. Bertan, besteak beste, **Urretxindorrak** talde bergararraren kantak berreskuratzeko aukera izango dugu. Bildumako lehen kompaktoan, Urretxindorroken kanta sail batekin batera ("Aitorren hizkuntz zaharra", "Iguriako boluan", "Markesaren alaba", "Mendi puntatik", "Munduko bideak" eta "Ohitura zaharrak") *Erlak* taldearen lau kanta eta *Enaraken* beste bi izango dira. Durangoko Azoka baino lehen kaleratzea espero da eta gurasoek seme-alabei bere garaiko musika erakusteko aukera izango dute...


## Zertan dibardute ba?

JOSE TELLERIARTE



Bergarako aitonak 104 urte beteko ditu astelehenean, irailak 27. Mizpirualde Erresidentziatik Jose nahiko ondo dagoela adierazi digute eta astelehenean bertako lagunekin ospatuko du fetxa hain berezi hori.

SOR INES RODRIGUEZ



Orain 16 urte Quintana de la Serenatik (Badajoz) etorritako monja honek 25 urte beteko ditu Karitateko Kongregazioan igandean. Hori dela eta, Mizpirualden omenalditxo bat eskeinko diote.

**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA

D. IRALA 5  
Tlfnoa: 76 24 88 BERGARA

AGENTZIA:  
J. ELKORO

Ibargarai 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

## Umore giroan

### Lagunan ardau txikituak

Oso lagunak ziran bixak. Beti alkarrekin. Baiñan bixetako bat urriñera eta denbora askorako juan biar izan zan. Eta juaterakuan auxe kontseju au emon zetsan:

- Ara, aztu ez gaitxezen bata bestiakin, ik tabernara oianian, eskatu beti bi txikito, bata iretzat eta bestia nere izenian. Eta kafia artzerakuan bardiñ.

Baita be kopia artzerakuan. Ik beti bi eskatu. Nik bardiñ egingo juat.

Tabernarixari emon zetsan explikaziñua:

- Ara, bata neria dok, eta bestia lagunak izenian.

Eta olaxen urte mordoxka baten... Egun baten, baiña, sartu da tabernara:

- Ekarrik txikito bat bakarra.

Tabernarixak orduan:

- Zer? Lagunak il dok ala?

- Bai zera! Medikiak edari guztiak proibitxu jestaz. Orregaitxik, oiñ lagunana bakarrik eraten juat.

*Pedro Zelaia*

## ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK

### TXOMIN AMASORRAIN HIL DA

Irailaren 20an hil zaigu Txomin. Duela zortziren bat urte ezagutu nuen nik Txomin Amasorrain. Sasoi hartan, 1965. urtean edo, ERNAI antzerki taldea sortua zuen Bergaran, eta Eibarren saioren bat antolatzeko asmoz haren etxera jo nuen. Betidaniko adiskide bagina bezalaxe hartu ninduen, guztiz maitekiro eta eskuzabalez.

Txomin Amasorrain Arrasaten jaioa genuen 1908. urtean. Gurasoek laupabost urterekin Bergarara eraman zuten arren, ez zuen sekula Arrasateko senideekin harremanik galdu. Izan ere, Bergaran bere burua bertakotzat bazuen ere, ez zion ez bere baitan, ez eta familia artean ere, errotik zetorkion "mondrautar" zentzuari inoiz uko egin.

"Perito Industrial" deitu ikasketak eginak zituen. Gizon argia omen, apala bezain jakintsu. Adiskideek sarri esan ohi zioten: "Ai Txomin, Txomin... hik erru bat baino eztaukak... apalegixa haizela, apalegixa, Txomin. Hire erdi eztan batek baino gehiagok jharduk hor zehar ahoberoka!". Bai Txomin apala genuen. Bere etengabeko ekintza isilpean egin ohi zuena. Baterre erronkarik bota gabe, hala zelakoan, inguruko



edozein bera baino gehiago balitz bezala.

Euskarazko ikastaroak ematen lehenetarikoa izan genuen Txomin. Berak eta Yosu Oregik ekin zioten lan bikain hari orain baino giro hestugo eta sasoi eskasagotan. Eta irakasle zelarik ere, sarri esaten omen zien ikasleei: "Yosu bai jakintsua. Nik zenbat ikasten doten gero, Yosurekin..." Txomin, betiko Txomin, Txomin apala, apalegia...

Berrogeitaka urteko lana utzi digu argitara gabe: "aditz-urratuak", euskal aditzaren egundainoko azterketa alegia.

**1973-X-7.**

**Zeruko Argia. Amatiño.**

# Biltoki

## BETI ZURE ZERBITZURA!



### xey

SUKALDE ETA BAINURAKO  
ALTZARIAK.  
DISEINU ETA KALITATE  
HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G  
☎ 76 34 00



### PHILIPS

TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100  
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6  
☎ 76 25 96

### dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,  
ALFOMBRAK, LARRUZKO  
SOFAK, DEKORAZIORAKO  
OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2  
☎ 76 43 51



**Zumelaga**


**JATETXEA**

**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5

BERGARA

☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

**MARI ANGELES OLAIZOLA**

Olaso Dorreak, Monzonen Etxea bezala ere ezaguna denak, badu beste izen bat: Reazibal Dorretxea.

**MARI ANGELES OLAIZOLA**k erantzun zuzena jarri du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, **ARGAZKI**k emandako saria.

**ZORIONAK !!**

**Besteok segi asmatzen! Animo!!**

# **HERRAN ETXEA**

**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4. 76 37 53




**Elektragailuak, TB,  
bideoak, HIFI  
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



MARI ANGELES OLAIZOLAK jaso du aste honetan ARGAZKIk emandako saria.



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUA JANTZIDENDAK emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

San Martinak aprobetxatuz Bergarako Udalak Herriko "Seme Kuttun" duen Justo Garateren biografia argitaratu eta ezagutzera eman zuen pasa den 17an Kultur Etxean. Liburu honetan mende hasieratik 1992ra arteko zientzi gizon eta euskaltzale ospetsuaren bititza azaltzen zaigu, beste artikulu eta abarrekin batera. Aste honetako galdera hauze duzue:

**Nola du izena Justo Garateren biografia biltzen duen liburuak?**



izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

**Pelota partiduak**

Larunbatean, hilak 25, 22.30etatik aurrera Bergara K.E.ko pelota sailak Anoetako taldearen aurka jokatuko du jubeniletan banaka eta bikoteka Bergarako Frontoian.

**Ur iharduerak**

Kirol Zerbitzuak gazte eta edadetuentzako eskeintzen dituen kirol ihardueren artean, mantentzen gimnasia eta aerobikaz gain, ur iharduerak izango dira urriaren 5etik abenduaren 23ra bitarteko astearte eta ostegunetan. Ikastaro honetan teknikaren hobekuntza, prestakuntza fisikoa eta trebezia uretan landuko dira.

**JOSU ARANA: "Sailkapeneko lehen postutan izango gara"**

**Bergara K.E.ko futbol talde nagusiak 0 eta 3ko emaitzaz irabazion igandean Aloña Mendiri Oñatin. Josu Aranak (23 urte) 16 urte daramatza kategoria ezberdinetan eta bera izan dugu taldeko kapitaina ligako lehen 3 partiduetan.**



Josu Arana.

- Zein da aurtengo zuzen helburua?

- Ba ahalik eta ondoen ibiltzea. Nekeza izango da 3. mailara igotzea baina hortxe ibiliko gara. Nik uste dut joan zen urtean baino denboraldi hobea egin dezakegula. Talderik onenak? Nere ustez UPV, Lagun-Onak, Mutriku eta Aloña-Mendi dira momentuan indartsuenak.

- Aloña-Mendiri ere irabazi diozue...

Defentsak linean jokatzen du jokoan kanpoko posizioa bilatu gabe eta lineen artean ez dago ia espaziorik. Taldeko linearik onena defentsa da.

- Eta entrenadore berria?

- Ideiak oso argi dauzka eta badaki nola jokatu behar dugun. Gainera erakusten ere badaki eta asko erakutsi digu.

- Talde gaztea duzue.

- Bai, 22 bat urteko media izango da eta etorkizunera begira talde polita osatu daiteke. Dena den, ea etxeko partiduetan hobeto jokatzen dugun; taldeak asko ixten dira eta hori gaitzen ikasi eta landu behar dugu. Eskorriatzaren aurka ez gauen batere ondo jokatu eta Zumaiakoren aurrean partidu polita egitea espero dugu, ea jendea gustora uzten dugun.

- Dena ondo irten zen. Partidu konpletoa egin genuen; defentsan ondo aritu ginen eta 3 gol sartu (Boni, Juanjo eta Iban). Kanpoan hobeto jokatzen dugu kontraerasoan jokatzea primeran datorkigulako.

- Zertan aldatu da taldea joan den urteko arekin konparatuz?

- Eskema aldatu dugu.

**San Martin krosa**

Txomin Martin zornotzarrak irabazi zuen larunbatean jokatutako IV. San Martin Krosa. 200 partaide inguru izan ziren, ibilbidea 6 Km.takoa zen eta lehen bergararra Ander Arietaleaniz (argazkian) izan genuen 10. postuan. Lehen emakumea, berriz, Amaia Mazorriaga izan zen eta gainontzeko kategorietan ondoko bergararrak nagusitu ziren: Beñat Ezeiza eta Ane Alberdi 9 urterarteotan, Jose Mari Larrañaga eta Ane Lete benjaminetan, Iosu Areitio infantiletan, Iosu Aloaz kadetetan, Bittor Rodríguez juniorretan eta Anselmo López beteroetan.



**BELENGUA**

**Taberna**

**Pintxoak, kafeak...**

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

*Carmen Garate*

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



### *San Frantziskoren aldeko bederatziaurrena*

**A**sisko San Frantziskoren ohoretan bederatziaurrena antolatu dute 3. Ordenakoek (Seglarrek) irail amaiera eta urriaren hasierarako. Garai batean Udal Banda eta guztiko prozesioak izaten omen ziren bederatziaurren horretan eta orain orduko indarrak ez badu ere, oraindik urtero izaten dira ospakizunak eta aurten ere izango dira irailaren 26tik urriaren 4ra. Argazkian agertzen diren hiru ilarek San Frantziskok fundatutako hiru ordenak sinbolizatzen dituzte: lehenengoan fraileak ageri dira; bigarreanean, monjak eta hirugarreanean, seglarrak. Argazkia 1952ko San Frantzisko egunean, urriaren 4ean aterata dago eta Bederatziaurreneko elizkizunei gora haundiagoa ematearren jantzen ziren era horretan. Honako hauek dira erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Lehenengo ilaran:** Mateo Salaberria, Juan Gallastegi, Jabier Elorza, Migel Sanchez, Felix Ugarte, Jabier Alberdi, Jose Ignacio Beristain eta Agustin Albizu.

**Bigarren ilaran:** Rosarito Garitano, Rosi Pujana, Mari Asun Laspiur, Arantxa Alberdi, Mari Karmen Larrañaga, Elisa Asenjo, Arantxa Iturralde eta Begoña Agirrezabal.

**Hirugarren ilaran:** Maribel Suinaga, Begoña Larrañaga, Mertxe Beristain, Mari Sol Mujika, Jose Ramon Lazkano, Jose Luis Gallastegi, Jabier Beistegi eta Jabier Zabaleta.

Makurtuta dagoena, Martin Beain.

*Estepan Plazaola*

*Argazkia: Martin Beain*



PINTURAS BERGARA, S.L.

Aranerreka, 32 behea. BERGARA  
Tfnoa eta Faxe: 76 11 40


- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK
- Etab...

**ETXEBIZITZA**

**Garajea** hartuko nuke alokairuan **Tokiederren** edota **Espololan**  
☎ 76 52 45.

**Pisu amueblatua** alokatzan da herri erdian.  
☎ 76 19 29.

**Pisua** hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

**Pisua salgai** San Lorenzo 1ean. ☎ 76 27 35.

**Etxea** hartuko genuke alokairuan. ☎ 21 34 60.

**Pisua salgai** San Lorenzo. ☎ 76 27 35.

**DENETARIK**

**Paseorako bizikleta** (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

**SEAT Ibiza** bat salgai. 3 urte, 34.000 km.  
☎ 76 35 14.

**ZEUS** errepideko **bizikleta** salgai. 56 neurrikoa, pintatu berria. Gurbil berriak. 69.500 pzta.. ☎ 76 11 21.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Master System II** kontsola salgai. ☎ 76 03 31.

**Karabana** bat salgai. la berria. ☎ 77 04 98.

**Kaminoko bizikleta** bat erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

**Uberan taberna salgai.** Erreztasun haundiak.  
☎ 76 25 99.

**Argazki makina salgai:** Nikon AF-601, 35-70 objektiboduna. ☎ 76 00 62.

**Kanpin denda** haundia salgai. 45.000 pzta.  
☎ 76 26 73.

**Kitarra klaseak** hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

**Trialeko motorra salgai.** Merlin 350 zk. ☎ 76 07 04.

**Pertsona** bat behar dugu Deuston pisua osatzeko  
☎ 76 49 69.

**Pastor-aleman txakurkumak salgai.** ☎ 76 55 29.

**Ume kotxe** bat salgai. ☎ 76 02 00.

**Nintendo** bat salgai. 6.000 pta. Bi mando.  
☎ 76 58 93 (Unai).

**Opel Cadet 1800 I** kotxea salgai (SS-AK)  
☎ 76 45 81.

**Bigarren eskuko bizikleta estatiko** bat erosiko nuke  
☎ 76 50 58.

**Transformatutako Vanelte furgoneta salgai.** Ohe, sukalde, izozkalilu, mahai, iturri eta guzti.  
☎ 79 28 81.

**TV GAME 2.600 bideo kontsola salgai:** 224 joku eta mando eta guzti. 4.500 pzta.  
☎ 76 54 12 / 76 13 14.

**3 berogailu salgai:** keroseno, butanozkoa eta elektrikoa. ☎ 78 05 72.

**OPEL CORSA City, BI-AK salgai.** ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

**Doberman** arrazako txakur emea salgai. 40.000 pzta. ☎ 76 57 67.

**Ilea eta bizarra** mozttera joango nintzateke etxetz. ☎ 76 41 98.

**Renault Super 5** kotxea salgai. BI-AL matrikula.  
☎ 76 52 90.

**LANA**

**Umeak zaindu eta etxeko lanak** egingo nituzke.  
☎ 76 03 72.

**OHoko klaseak** ematen ditut. ☎ 76 19 59.

**EGB eta ingeles klaseak** emango nituzke  
☎ 76 23 67 / 76 22 90.

**Etxeak garbitu** edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

**Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Euskarazko klaseak** ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 70 12 71.

**Ingeleseko klaseak** ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**OHO eta Ingeleseko klase partikularrak** ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeleseko klaseak** ematen ditut. ☎ 76 31 36.

**Hildakoak**

*Francisco Eguren Bilbao*  
irailak 17, 75 urte

**Jaiotakoak**

*Laura Cid Aldama*  
irailak 13

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

*Kabutzia*

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

# HALTZARI


**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**


Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



**FAGOR** 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6** URTEKO  
GARANTIA



*Udal Kirol Zerbitzua*

**GAZTE ETA EDADETUENTZAKO KIROL IHARDUERAK**

**1993-94**

**16 URTETIK AURRERA**

• **MANTENIMENDU GIMNASIA** •  
GOIZ ETA ARRATSALDEZ

• **AEROBIKA** •  
ARRATSALDEZ

• **UR IHARDUERAK** •  
GOIZ ETA ARRATSALDEZ

IKASTARO HONETAN TEKNIKAREN HOBEKUNTZA, PRESTAKUNTZA  
FISIKOA ETA URETAN MUGITZEKO TREBETASUNA LANDUKO DIRA.

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEAK UDAL KIROL ZERBITZUAN. ☎ 76 39 42-3-4

**PLAZA  
MUGATUAK**